
PORRONTXOJAIAK
2004
irailak 11,16,17,18,19
EGIA

# *Agurra*

Beti esan da jaia eta borroka edo/eta errebindikazioa ez direla, eta ez dutela izan behar bateraezinak . Porrontxoak 24. aldiz ospatzen ditugun urte honetan, beste urtemuga bat ere gogoratu behar izan dugu, zoritxarrez : ekainean 25 urte bete dira Goardia Zibilak ,Tuteran, tiro batez , gure auzokide Gladys del Estal hil zuenetik.

Gladys, beste hainbat lagun bezala, Tuterara joan zen Lurraren Nazioarteko Eguna ospatzera, jaia eta borroka ospakizun berean batuz. Arlo ludikoa eta erreibindikatiboa lotzen zuen festa zen. Jai giroan, lurra, natura, eguzkia, airea.... errebindikatzen zen. Zentral nuklear eta Bardeetako tiro-eremuaren kontrakoa zen protesta. Azken finean, gureago , bizigarriago, justuagoa izan behar duen lurra exijitzen zen. Ondasunak, gutxi batzuren onurarako izan beharrean, denon ongizaterako izatea eskatzen zuten Tuteran elkartutakoek.

Boteretsuek ezin dute horrelakorik jasan. Beraien pribilegioak arriskutan egon daitezkeela edo murriztu ahal direla sentitzen dutenean, edo matxinadaren aztarnak sumatzen dituztenean, hori zapaldu beharra daukate. Edozein bide erabiliko dute

Kasu honetan, beren indar armatuak bidali zituzten, beren zerbitzaririk leialenak. Eta goardia zibil batek garondora botatako tiro lehor hark, 23 urteko bizitza bat suntsitu zuen.

Porrontxoak jaiak dira, neurri handi batean, baina, matxinadaren, subertsioaren kutsua ere badute.

Horrexegatik dira une egokiak Gladys gogoratzeko, ez tristuraz, baizik eta ilusioz eta itxaropenez, espiritu ludiko eta erreibindikatiboz. Honelakoxea zen Gladys hil zutenean ospatzen ari zen jaia. Matxinadarako, subertsiorako eta autoantolaketarako guneak mantentzen jarraitu behar delako, justiziaren eguzkiak distira egiten segi dezan, askatasunaren haizea ibil dadin, itxaropenaren loreak eta elkartasunaren zuhaitzak haz daitezen.

Horrexegatik da garrantzitsua jaiak antolatzen jarraitzea eta berauetan, gogoz, ilusioz eta pozez parte hartzea. Sortu ditzagun topalekuak, adiskidetasunerako, elkartasunerako, askatasunerako eta benetako elkarbizitzarako guneak. Horrelako balioak direlako bizirik mantentzen gaituztenak eta subertsibo eta matxino bihurtu.

Honela, bada, aurten ere, animatzen zaituztegu jaietan parte hartzera aipaturiko espiritu eta balio horiekin, gure artean ez daudenak, ilusioz, alaitasunez eta itxaropenez gogoratuz.

Porrontxoek jarrai dezatela izaten askatasun, jai, matxinada, parranda, subertsio, etab.etarako guneak.

**AZKEN OHARRA:** Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.

**NOTA:** La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

**FESTA BATZORDEAK ESKERRAK EMATEN DIZKIE PORRONTXO JAI HAUEN EGITARAUA EGITEN LAGUNDU DUTEN DENDARI ETA AUZOKIDE GUZTIEI**

**LA COMISIÓN DE FIESTAS AGRADECE A LOS VECINOS Y COMERCIANTES DEL BARRIO QUE CON SU AYUDA HAN COLABORADO EN LA REALIZACIÓN DE ESTE PROGRAMA DE FIESTAS**

OHARRA: JAIETAN AUZOKIDEAK ANIMATZEN DITUGU TERRAZAK APAIN DITZATEN, IKURRIÑA, KOLOREZKO GLOBOEKIN EDO NAHI DUTEN BEZALA.

NOTA: ANIMAMOS A LOS VECINOS A QUE COLABOREN EN FIESTAS ADORNANDO LOS BALCONES CON LA IKURRIÑA, CON GLOBOS DE COLORES O COMO MEJOR SE LES OCURRA.

## LARUNBATA 11

**10:30 Eskuz eta palako semifinalak** frontoian.

**11:00 Egiatik Kantari** malabar,hankapalo, kale animazio eta Amaia, Hodei eta Haizearen trikitixaz alaituta.

**14:00 Kuadrilentzako Bazkaria** P. Haundin*

Bazkarian, bi pertsonentzako asteburu bat landetxe batean zozketatuko da.

**17:00 Mus, pin-pon, toka, futbolin, tabak, e.a jokoak trikitixaz alaituta** P. Haundin.*

## IGANDEA, 12

**10:30 Porrontxo VII. kros txapelketa**

Plaza Berritik, Egia, Atotxa, epaitegian buelta, Mundaiz eskolako sarreran buelta, Egia, Ametzagaña, Maria Reinatik Karmengo Amara eta bukatzen da Plaza Berrin. Bi buelta ematen dira.

## OSTEGUNA, 16

**17:00 Buruhaundi eta erraldoiak** INCANSABLES txarangarekin.

**17:30 Haur jeitsiera** Karmengo Ama kalean zehar.

**18:00 Haurren Pilota finalak** frontoian.

**18:30 TAKOLO, PIRRITX eta PORROTX** P. Haundin*.

**20:00** Suziri eta Porrontxoen jeitsierarekin, **jaien hasiera.**

**20:01 Kuadrilen jeitsiera** KANTAURI eta LAGUNAK txarangekin, **Karmengo Ama kalean zehar.**

**22:00 Dantzaldia** TRAKETS taldearekin Plaza Haundin.

**22:30 Karaokea eta Koadrilen esketxak Txosnen gunean.**

**23:00** INCANSABLES txaranga.

**01:00 Banana Dantza eta Aulkien jokoa** P. Haundin.

**01:01** JATORRENAK txaranga.

**04:04 Txokolatada Txosnetan.**

## OSTIRALA 17

**12:00 Trikitixa: Alkorta anai-arrebek eta Amaia, Hodei eta Haizeak auzoa alaituko dute.**
**12:00 Haurrentzako POTXIN eta PATXIN malabaristak** Plaza Haundin.*
**13:03 Hamaiketako herrikoia Plaza Berrin.**
**17:00** Aldakonea egoitzan Amaia, Hodei eta Haizearen trikitixa.
**17:00 ~ 20:01 Kuads, Zezen mekanikoa, puzgarriak... 12-17 urtekoentzat Maria Reina Eskolan.** Antolatzaileak: Egiako gaztelekua, Gazteri saila eta Donostia Kultura.

**18:00** Buruhaundi eta erraldoiak INCANSABLES txarangarekin.
**18:30 ~ 20:30 Aiton Amonentzat** Orkesta Miramar **taldea Plaza Berrin.**
**18:30 Haurrentzako Antzerkia** GORRINGO Taldearekin **Plaza Haundin*** Donostia kulturak ekarrita.
**19:00 Bertso Poteoa** Nerea ELUSTONDO eta Xabier SILBEIRA Bertsolariekin eta Haizea, Hodei eta Amaiaren **trikitixarekin.**
**20:00** KANTAURI txaranga.
**20:32** Kuadrilentzako **boleibol eta hankaz gora jokoak** P. Haundin.
**21:30 Haurrentzako Zenzensuzkoa** Tejeria kalean.
**21:33 Afari Herrikoia Plaza Gorrin.**
**22:00 Berbena** LAIOTZ taldearekin **Plaza Haundin.**
**22:02 Kontzertua** ADIKUNE, ZAMA, SOPHROSYNE eta NEZIOS taldeekin **Txosnen gunean.**
**23:00** ELEKTROTUNA Egian zehar.
**23:31** JATORRENAK txaranga.
**00:00 SOKA SALTO eta PUZGARRIEN jokoak P. Haundin.**
**01:00** LAGUNAK txaranga.
**05:00 Baratxuri zopa txosnetan.**

## LARUNBATA, 18

### ELKARTASUN EGUNA

**08:01** JATORRENAK txaranga.

**10:00 Gladys Enea parkean umeentzako txokolate jatea eta haur jolasak**.AMALUR TALDEArekin. (Donostia kultura babestutako ekitaldia)

**11:00 Bigarren eskuko azoka eta argazki erakusketa Plaza Berrin** . Antolatzailea EGIA BIZIRIK Auzo Elkarteak.

**17:00 Mus finalak.**

**17:00** Buruhandiak eta erraldoiak LAGUNAK txarangarekin.

**17:30 Haurrentzako Tailerrak** Plaza Berrin*.

**18:00 Koadrilentzako OLINPIADAK** (eskiak, lasterketa lotuta, erdi aroko torneoa, erratza...) **Plaza Haundin.**.

**19:00** OIHULARI KLOWN taldearekin kale antzerkia P. Haundin.

**19:00** Haurrentzako dantzaldia AUSKALO taldearekin Plaza Berrin*.

**20:30 Haurrentzako Zenzensuzkoa Plaza Haunditik abiatuta.**

**21:00 Kuadrilen afaria, kafe eta kopatxoarekin Tejeria Kalean.**

**22:30** KANTAURI txaranga.

**23:00** Dantzaldia IZOTZ taldearekin Plaza Haundin.

**00:30** Porrontxoekin **KALEJIRA** txaranga eta auzoko zanpartzarrekin.



Ondoren Aurresku herrikoia.

**01:00** KANTAURI txaranga.

**01:30 BATUKADA TAUPADA taldearekin** Egian zehar.

**01:30** NEKIN trikitixa taldea Txosna gunean.

**02:00** BALDARRAK txaranga.

## IGANDEA, 19

**07:00 Kuadrilentzako oilasko gosaria Plaza Haundin.**

**07:33** Koadrilentzako Zapiaren jokoa. Plaza Haundin.

**08:30** INCANSABLES txaranga.

**10:00 Esku-pilota eta pala txapelketako finalak** frontoian.

**12:00** LA RIVERA CANTA taldearen **jotak Plaza Haundin.**

**12:30** Sagardo dastaketa Hodei, Haizea eta Amaia trikitilariekin.

**14:30** Bazkari herrikoia Plaza Gorrin,

Donosti-Gain, Ur-zaleak eta Arrano elkarteen laguntzarekin.

**17:00 Herrien arteko Herri kirolak XIBAren eskutik** P.Haundin.

**19:00 Sardina jatea** Hodei,Haizea eta Amaia trikitixaz alaituta.

**20:00 Dantzaldia** TRIKIZIO taldearekin Plaza Haundin.

**21:00** INCANSABLES txaranga.

**22:00** Kuadrilen kalejira Egiako kaleetan, Porrontxarekin eta Porrontxoarekin.

**23:00** Jaien bukaera: Azken traka eta Porrontxinoaren erreketa.

**(*)Eguraldiarengatik beharrezkoa balitz pilotalekuan egingo lirateke.**

---

**EZ APARKATU** **NO APARCAR**

**OHARRA:** Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

**NOTA:** Se solicita la colaboración de los vecinos/as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

**TEJERIAN**: Kale honetako goiko aldea ostirala arratsaldetik larunbata gaua arte (koadrilen afaria, dela eta).

En la parte alta de la calle a partir del viernes a la tarde hasta el sábado a la noche (por la cena de cuadrillas).

PORRONTXO JAIAK '04
egia
traolak
11
16
17
18
19

EGIA 2004
PORRONTXO !!
JAIAK
TRAILAK
11,16,17,18,19